

## 12. FITXA. Erronka demografikoa duten udalerrietako eraikinen energia birgaitzeko programa (PREE 5000)

**Zeri zuzenduta:** Lehendik dauden eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzeko egiten diren eraberritze-jarduketei, 5.000 biztanle arteko erronka demografikoko udalerrietan, edo hirikoak ez diren 20.000 biztanle arteko udalerrietan.

**Sartzeko esteka:** [Deialdia Energiaren Euskal Erakundearen webgunean](#)

**Erreferentziak arauak:** [2021eko azaroaren 4ko EHAA, 219. zk.](#) [Dokumentazioa PDF eranskinean.](#) [abuztuaren 3ko 691/2021 Errege Dekretua \(2021/08/04ko BOE\)](#)

**Eremuak:** Erronka demografikoa duten udalerrietan lehendik dauden eraikinen energia birgaitzea

**Zenbatekoa:** 50.0000.000 € (EAErako aurreikusitakoa: **1.554.450 euro**)

**Aurkezteko aldia:** 2022/01/13tik 2023/12/31ra (edo funtsak agortu arte)

## Laburpena

Deialdi honen helburua da Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 2.1 artikuluan araututako **eraikin osoetan egiten diren jarduketak diruz laguntzea**, betiere eraikina 2007. urtea baino lehen eraiki bada. Honak hauek lagunduko dira diruz: **inguratzaille termikoaren, argiztapen-, klimatizazio-, aireztapen- eta ur beroaren ekoizpeneko instalazioen, eta erabilera termikoetarako energia berriztagarrien efizientzia energetikoa hobetzea.**

Nahitaezkoa da programa honetan diruz laguntzeko moduko gisa aurreikusi diren jarduerak EAEko erronka demografikoko udalerriren bateko eraikin edo etxebizitzetan egitea. Ondorio horietarako, **erronka demografikoko udalerritzat joko dira 5.000 biztanle arteko udalerrriak, eta hirikoak ez diren 20.000 biztanle arteko udalerrriak, baldin eta udalerrri horietako biztanle-entitate berezi guztiek, gehienez ere, 5.000 biztanle badituzte.**

## Onuradunak

Honako hauek izan daitezke laguntzen azken hartzaileak, baldin eta egoitza fiskala Espainian badute, eta energia birgaituko den eraikina EAEn badago:

→ Toki-erakundeak, **Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.2 artikuluan aipatutako edozein administrazio publikoren toki-araubidearen oinarriak eta sektore publiko instituzionala arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikulua** arabera.

- Edozein erabileratarako diren, eta lehendik dauden eraikinen jabe diren pertsona fisiko edo juridikoak, pribatuak edo publikoak.
- Etxebizitza-erabilerako bizitegi-eraikinen jabeen erkidegoak edo jabeen erkidegoen elkarteak, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera eratuak.
- Modu bateratuan eraikinen jabe diren jabeek, Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta Jabetza Horizontala eratzeko titulua eman ez badute.
- Enpresa ustiatzaileak, errentariak edo eraikinen emakidadunak, baldin eta izaera hori egiaztatzen badute jabearekin epe luzerako indarrean dagoen kontratuaren bidez, eta horrek berariazko ahalmena ematen badie Programan sartu beharreko jarduketako berritze-obrei ekiteko.
- Energia zerbitzuen enpresak (EZE) edo energia-zerbitzuen hornitzaileak, otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuan definituta daudenak (56/2016 Errege Dekretua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren energia-efizientziari buruzko 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentaraua Espainiako legera ekartzen duena, 2012/27/EB Zuzentaraua, 2009/125/EE eta 2010/30/EB Zuzentarauak aldatzen dituena, 2004/8/EE eta 2006/8/EE Zuzentarauak indargabetzen dituena, energia-ikuskaritzei, energia-zerbitzu hornitzaileen eta ikuskarien akreditazioari, eta energia-horniduraren efizientzia sustatzeari dagokionez). Onuradun izan ahal izateko, enpresa horiek jabetzarekin horretarako ezarrita duten kontratuaren arabera jardun beharko dute, eta aurrera eraman beharko dituzte esku artean dituzun Oinarri hauetan jasotako jarduketa-tipologiaren batean barne hartzen diren inbertsioak; gainera, energia-zerbitzuen enpresa gisa jardun izana eta egindako inbertsioa egiaztatu beharko dute.
- Energia berriztagarrien komunitateak eta herritarren energia-komunitateak, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabileraren sustapenari buruzko 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/2001 Zuzentarauaren arabera, eta, hurrenez hurren, 2012/27/EB Zuzentaraua aldatzen duen eta elektrizitatearen barne-merkatutarako arau erkideei buruzko 2019ko ekainaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/944 Zuzentarauaren arabera, baita energiaren alorrean eta susperraldi ekonomikorako beste esparru batzuetarako neurriak onartzen dituen ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluen arabera ere.

## Gastuetarako aldi hautagarria

Laguntza-eskaera erregistratu ondoren hasitako jarduketak baino ez dira onartuko, eta ez da hautagarritzat joko jarduketa gauzatzearekin lotutako kosturik, aurretik fakturatutakoa bada. Dena den, eskabidea aurkezteko edo dagozkion inbertsioak egiteko beharrezkoak diren prestaketa-jarduketei dagozkien kostuak (proiektua, memoria teknikoak, ziurtagiriak, etab.) diruz laguntzeko modukotzat jo ahal izango dira, nahiz eta aurrez fakturatu, baldin eta 2021eko abuztuaren 5a baino geroago hasi badira.

**Laguntzaren xede diren jarduketak gauzatzeko eta fakturatzeko gehieneko epea hemezortzi (18) hilabetekoa izango da, laguntza eman izanaren ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.**

## Jarduera-lerroak

Diruz lagundutako jarduerak honako arlo hauetan egin beharko dira:

- Ingurutzatzaile termikoaren energia-efizientzia hobetzea.
- Berokuntza-, klimatizazio-, hozte-, aireztapen- eta etxeko ur beroaren ekoizpeneko instalazioen energia-efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera hobetzea.
- Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzea.

## Laguntzen zenbatekoa eta laguntza motak

Laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntza batetik abiatzen da jarduera-ildo bakoitzean:

- 1. mota. Inguratzaile termikoaren energia-efizientzia hobetzea: % 50.
- 2. mota. Instalazio termikoen energia-efizientzia hobetzea: % 40.
- 3. mota. Argiztapenerako instalazioen energia-efizientzia hobetzea: % 20.

Oinarrizko Laguntza hori handitu ahal izango da, honako hauen arabera:

- Irizpide soziala: Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunak babes publikoko araubide baten pean behin betiko kalifikatutako etxebizitza-erakinetan egiten diren jarduketak.
- Energia-efizientzia: eraikinaren energia-kalifikazioa hobetzen duten jarduketak, «A» edo «B» klase energetikoa lortzeko, CO2 eskalan, edo hasierako energia-kalifikazioa bi letratan hobetzen dutenak.
- Jarduketa integratua: jarduera-lerroetako bi edo gehiago barne hartzen dituzten jarduketak.

Laguntzen deialdi honen esparruan gauzatutako jarduketek honako muga hauek izango dituzte, eta diruz lagundu daitezkeen jarduera-mota guztiei aplikatuko zaizkie:

- Eskaera bakoitzeko gutxieneko kostu hautagarria: 10.000 €.
- Laguntzaren azken hartzaile bakoitzeko gehieneko laguntza: 250.000 €

Beste laguntza batzuekin bateragarriak diren laguntzak, baldin eta laguntza horrek kostu berberak estaltzen ez baditu eta, metatuta, 651/2014 Erregelamenduan ezarritako mugak gainditzen ez badira, merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa diren, edo jarduera ekonomikoren bat egiten duten azken hartzaileentzat.

## Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Laguntzak EAEn lehendik dauden eraikin osoetako jarduketetara bideratuko dira, baldin eta eraikinek erabilera hauetako bat edo gehiago badute:

- Familia bakarreko etxeak (etxebizitza isolatuak, atxikiak, txaletak...).
- Bizitegi kolektiboko etxebizitza-erakinak.
- Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 2.1 artikuluan araututako beste edozein erabileratako eraikinak (administraziokoak, osasungintzakoak, irakaskuntzakoak, kulturakoak, etab.).

Ez dira diruz lagunduko honako jarduketa hauek:

- Eraikin berrietan egindakoak;
- Lehendik dauden eraikinetan egindako esku-hartzeak, baldin eta handitzea badakarte, eta eraikitako azalera edo bolumena handitzen bada;
- Lehendik dauden eraikinetako esku-hartzeak, eraikinaren erabilera aldatzea dakartenak.

Horrez gain, honako baldintza hauek bete beharko dira laguntzak emateko:

- Eraikina lehendik eraikita egon behar da, 2007a baino lehen, eta hori ondasun higiezinaren katastroko datuaren kontsulta deskriptibo eta grafikoaren bidez justifikatuko da.
- Eraikinaren erabilerari dagokion laguntza aplikatzeko, erabilera hori etxebizitzakoa edo beste erabilera batekoa den kontuan hartuta, sestra gainean eraikitako azalera hartuko da kontuan, katastroko kontsultaren bidez justifikatuz. Ildo horretan, etxebizitza-erabilerako eraikintzat hartzeko, sestra gaineko azalera eraikiaren ehuneko hirurogeita hamar (% 70) gutxienez erabilera zehatz horretara bideratuta egon behar da. Kasu horretan, laguntzaren zenbatekoari dagokionez, etxebizitza-erabilera aplikatuko zaio jarduketaren azalera osoari, erabilera osoa etxebizitzarena ez bada ere.

Ez dira hautagarriak izango, hasierako egoerarekin alderatuta, amaierako energia-kontsumoa ehuneko hogeita hamar (% 30) murriztea lortzen ez duten, eta murrizketa hori justifikatzen ez duten jarduketak.

## Bestelako informazioa

Laguntzaren xede diren jarduketek karbono dioxidoaren emisioen eskalan neurtutako letra batean gutxienez (kg CO<sub>2</sub>/m<sup>2</sup> urtean) hobetu behar dute eraikinaren guztizko energia-kalifikazioa, eraikinaren hasierako energia-kalifikazioarekin alderatuta. Irizpide hori ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

- Eraikinak A energia-kalifikazioa duela egiaztatzen duenean eta hobetzeko neurriak proposatzen direnean; kasu horretan, aplikatuko den laguntza gehigarria A letrari dagokiona izango da, irizpide honetarako.
- Eraikinak, esku artean dituzun Oinarri hauetako 4.3.c) atalean jasotakoren bat izanik, energia-kalifikaziorako prozedurarik ez duenean. Kasu horretan, amaierako energia-kontsumoa ehuneko hogeita hamar (% 30) murriztu beharko du, letra bat hobetzearen baliokide gisa.